

ZAPATU SANTUKO KANPAIAK

Doinua: "Ikusten dozu goizean"

1

Zapatu Santu eguna
dana tristura, iluna,
zer da gertatzen jakuna?
Eguzkia hil, lurrak dardara,
hilobi-isiltasuna.
Hau da hau etorkizuna,
gitxien uste genduna:
Jaungoikoaren hutsuna.

2

Zabaldu da bala-bala
albiste triste mortala:
Jaungoiko Jauna hil dala!!!
Benetakoa kendu orduko
sasikoak kontau ahala...
"Orain neu naz printzipala",
hau gizonaren petrala!
Dagonak zaindu gaizala.

3

Jaungoikoa bat, jakina,
gure Egile bikaina,
mundua Berak egina.
Garbitu daigun geuk lohitu dogun
bere arpegi zikina.
Hau da gure ahalegina,
hau da jokabide fina:
konturatuko bagina!!!

4

Joten badogu kredora,
Jesus jatsi zan hondora,
inpernu leza zulora.
Heriotza han bertan desegin
ta urten eban kanpora.
Eta ez da joan inora
deika jatorku ondora:
"Biztu naz ta, urten gora!

5

Hau da gure sinismena:
badogu itxaropena,
geurea da garaipena!
Hauxe bai dala Salbatzailea,
ezin dau inor kondena.
Jesus dau Berak izena
dakar barririk onena:
"Heriotza ez da azkena".

6

Frantzisko Erromakoa
da Jesusen ordezkoa,
guretzat aproposkoa.
Requien orde, aleluia da
bere pozezko zantzoa:
Negu gaiztoa badoa,
kukuak jo dau bandoa:
"Heldu jakula Pazkoa".

7

Alperrik da barriketa
kaltegarria hilketa,
behar dogu konponketa.
Aita Frantzisko jo ta jo dago
udabarriko tronpeta:
Isi zoritxar-profeta,
amaitu jaku hileta
JESUS BERBIZTU DA-ETA.

8

Agur arreba, anaia,
laster da egun alaia,
hor entzun pazko kanpaia.
Jesus biztu da eta kendu dau
gure kontrako epaia.
Bota irrinzi alaia,
hartu gure onginahia,
ondo ospatu Pazko Jaia!